Kooperatiba honetako Artezkaritza Kontseiluak, 2026ko azaroaren 24an egindako bileran, gure estatutuek diotena jarraituz, honako erabakia hartu du:

EZ OHIKO ASANBLADA OROKORRERAKO DEIALDIA EGITEA

2026ko abenduaren 16an

Lehen deialdia 17:00etan, bigarren deialdia 17:30tan eta hirugarren deialdia 18:00etan Ikastolako egoitzan, ondorengo GAI ORDENA jarraituz:

1. Aurreko Asanbladako aktaren irakurketa.
2. Asanbladako akta onartuko duten bazkideen izendapena.
3. 2027ko aurrekontuen aurkezpena, eta hala badagokio, kuoten onarpena.
4. Loteria sistemaren inguruko hausnarketa
5. HaraGUra plan estrategikoaren azalpena.
6. 50. urteurrena
7. Irudietarako baimenen prozedura
8. Norberak lekarkeena.

OHARRAK:

A. *Asanblada egunean 3. deialdira, azaltzea gomendatzen da.*
B. *Bazkide guztiek Asanbladan aztergai izango diren gaien inguruko informazioa bilduko duen txostena eskuratuko duzue aldez aurretik.*
C. *Jolastokia zabalik izango duzue kotxeentzako.*
D. *Asanblada euskaraz izango da. Berehalako itzulpena behar duten bazkideek hala eska dezakete* ***artezkaritza@abusu.ikastola.eus*** *helbidera mezua igorriz.*

Estatutuetan datorrenari jarraituz, boto sozialen %10a ordezkatzen duten bazkideek, gaurtik aurrera eta 5 egunetako epearen barruan, Artezkaritza Kontseiluari helarazi diezaiokete, gai ordenenean sartuta ez dagoen gairen bat Asanbladan jorratua izatea.
Gure Estatutuetan azaltzen den bezala, Asanbladara etortzerik izango ez duten bazkideak, beste bazkide batek ordezkatzeko aukera du. Horretarako, deialdiarekin batera doakizuen akreditazio dokumentua behar bezala bete eta sinatu beharko duzue. Bazkide bakoitzak, gehienez ere, bi bazkideren ordezkaritza izan dezake, bereaz gain.

2026-12-16 asanbladaren atarian emateko BOTO-ORDEZKATZEA

.....N.A.N. zenbakidun bazkidea naizen .....
Asanblada Nagusira joan ezinean, ordezkapena.....bazkideari ematen diot.
Eta behar den lekuan ager dadin sinatzen dut agiri hau

Pontoi bidea, 20 - 48004 Bilbo (Bizkaia) - T. 944 339 203 - F. 944 333 523 - abusu@ikastola.eus - abusuikastola.eus